



batekmila

Kultura programa

2005 → 2007



Batzen gaituen kultura



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Euskal kultur erakundea

euskal kultur erakundea, 1990. garren urtean sortua izan da, iparraldean. Bere egoitza Uztaritzeko herrian dauka. Eginbeharnagusiak ditu, alde batetik euskararen eta euskal kulturaren alde ari diren elkarten laguntzea, diruz eta teknikoki proiektuen bitartez, eta bestetik



bere ekintza propioen bultzatzea, adibidez euskararen, ondarearen edo sormenaren alorretan. Estatuaren, Kontseilu orokorraren, Akitaniako Erregioaren, eta iparraldeko 145 herrik osatzen duten Herrien Arteko Sindikitaren diru laguntzak lortzen ditu urtero, nola ibilmodearentzat, hala kultura egitasmoen sostengatzeko. Azpimarretzekoa da 100 bat elkarte, Euskal Kultur Erakundeko kide direla.

Gaingiroki, erran daiteke gaurregun Euskal kultur erakundea bilakatu dela iparraldean ezinbesteko erakunde publiko bat (araudietan, 1901eko legearen arabera elkarte bat baldinbada ere), iparraldeko kultura aktore eta botere publikoentzat.

Kultura egitasmoak hiru moldeetara sostengatzen ditu, besteak beste :

Formakuntza : haur eta gazteendako antzerki, literatura, kantu, musika, bertsularitza, edo dantza tallerrak bideratuz

Sorkuntza :

diru eta laguntza teknikoak ekarriz elkarteei, halaber aholku artistikoak

Hedapena : ikusgarriak eta festibalak, ikus-entzunezko ekoizpenak, euskararen tokia bizi publikoan,...

Bestalde, Euskal kultur erakundea instituzioen eta elkarten arteko bitartekaritza segurtatzen ditu.

Azkenik derragun, joanago eta gehiago Euskal kultur erakundeak bizpahiru urtetako egitasmo federatzaileak alhan ezartzen dituela (Kantuketan, Batekmila, ..), partaidetzan Euskal Herriko eta kanpoko elkarte eta erakunde desberdinekilan.

Hegoaldearekilako harremanak

euskal kultur erakundea sortu zenetik, lan eta kultura harreman hurbilak ukan ditu hegoaldeko elkarte eta instituzioekin. Adibidez, badu orain 10 urte baino gehiago Eusko Jaurlaritzak daukan Euskararen Aholku Batzordean parte hartzen duela, iparraldeko ordezkari bezala. Baina harreman horiek, oroz gainera, azken hiru-lau urte hauetan garatu dira, guk euskal kantuaren alorrean ekoiztu « Kantuketan » programari esker. Alabaina, programa honetan, bada besteak beste erakusketa ibiltari bat eta hau hainbat toki eta herri desberdinetan ezarria izan da, aldiro ikusgarri eta animazio bereziak proposatuz (70 bat gutxi gora behera), hala nola Donostian (Koldo Michelena), Bilbon (Euskal museoa), Bera de Bidassoan, Andoainen, Arrasaten, Getxon, Laudion, Bermeon. Erran dezakegu « Kantuketan » izan dela abiabide bat. Gaurregun, aipatu ditugun herri hauetan, partaidetza berriak ediren ditugu eta kultura harreman hauek areagotuz joanen dira, ondoko hilabete eta urteetan.



hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin

Urrats handi bat eraman dugu, joan den urtean, hain zuzen iparraldearen eta hegoaldearen arteko kultura harreman horien indartzeko: Erramun Bachoc, gure elkarteburuak eta Miren Azkarate, Kultura sailburuak elkarlan hitzarmen bat izenpetu dute, 2003ko urriaren 18an, Euskal kultur erakundeko Administrazio kideen aurrean, eta hauen artean ziren, Estatu eta instituzioetako ordezkariak.

Oro har, hitzarmenaren helburuak dira ekingitza berezien eramaitea euskal kultura mailan (trukaketak bultzatzea, sorkuntzen hedapenaren sustatzea, mugaz bi gaindiko ondarearen baloratzea,...), ahantzi gabe hizkuntza zerbitzuen arteko lan harremanak.



BATEKMILA proiektu berria

Kantuketan izan den bezala Euskal Kultur Erakundearen hiruzpalau urtetako programa zabala, besteak beste anitz partaidetza berri lortu dituena, oraingoan « Batekmila » izeneko egitasmoarekin abiatu nahi dugu, beti helburu bera ukanez: euskal kulturaren alorrean, sormenaren eta hedapenaren indartzea, Euskal Herrian bertan, baina oroz gainera Euskal Herritik kanpo ere, gure kultura naturalki sar dadin, bizikidetasuna bilatuz, unibersaltasunaren munduan.

Euskal Herria aniztasun kulturalaren aurrean

Badu zenbait urte Euskal Herriak aldakuntza demografiko eta sozialak jasaten dituela. Migrazioaren jaropen garrantzitsuak eta bere ondorioz kanpoko hiritar kopuru gero eta handiagoa, demografiaren dinamika bertako populazioaren zahardadearekin adierazia, edo barnekaldeko lurraldeen rurbanizoaren fenomenoak bezalako elementu larriek dituzte Euskal Herriaren kultura eta bazter linguistikoak aldarazten.

Aniztasun kulturala errealitate bat da gaur egun eta herri honetako biztanleen nortasuna manera askoz adierazia da, hala nola, euskal

historiaz beteriko lurraldean elkarbizitzean, euskaradunen eta beste jatorri ugari egoiliar berrien bitartez.

Bizikidetasun kulturala finkatu

Honelako testuinguru soziologiko batean, euskal gizarteak egin beharreko apustua harreman espazio, komunitate ezberdinen arteko eta barneko elkar-ezagutza kokalekuen antolakuntzan datza.

Egunero asmatuko litaizkeen horrelako elkarrekilako harreman laguntzek, saihestu behar dituzte harreman hausturak edo komunitateen antolaketak, hauek guziek sozial loturen kontra baitoatzi eta ber bidetik euskal jendarte osoaren ongi bizitzearen eta garapen iraunkorraren aurka.

Ikuspen honetatik, gure herriko problematika lotzen ahal da internazional dimentsioko irriekin, UNESCOk defendaturiko Adierazpen Unibertsala bezala, adibidez, bere 2. artikuluan aniztasun kulturalari buruz zioen :



Gero eta ezberdintasun gehiago aurkitzen den gizarteetan baitezpadakoa da interakzio eta nortasun kultural ezberdinen pertsona eta taldeen arteko elkar bizitzeko elkar-aditze bat segurtatzea.





BATEKMILA proiektu berria

Ekintza kulturala ezberdintasun kulturalaren eta sozial loturen zerbitzuko

Badu zenbait urte Euskal kultur erakundea galdezketan filosofiko batez arduratzen dela, hau komunikazioaren eta besteekiko harremanen arloetan.

Pentsatzen ahal dugu euskal kultura lehen ordeneko bektorea izaten ahal dela, gizarte harremanen erainkuntzan, euskotar/ ez euskotar, euskaldun/ez euskaldun, hiritar/ baserritar -en arteko bizikidetasunean adierazia. Segur gira espresio garbi (euskara) baina ere unibertsalean (dantza, kantua...) euskal kultura elkarren erreferentzia bat bilakatzen ahal dela Euskal Herriko biztanle ororentzat, bakoitzaren sorkuntzen eta ezberdintasunen integratzailea.

Hau lortzeko, euskal kultura erakargarria eta hurbil-errea bilakarazi behar da, gehienbat bere edukinari begiratu. Guri da euskal hizkuntza eta kulturari interesatzeko gogoia sorraraztea.

Kantuketan pogramari esker, euskal kultur erakundeak lortu du publiko berri bat erakartzen, euskal eta unibertsal espresio kultural baten bizitasuna eta aktualitatea erakutsiz, hau da, kantuarena.



Heldu diren urteentzat gure proposamena da ber inportantziako operazio bat eramatea, komunikazio eta besteekiko harrreman arteko problematika kontutan hartuz, eta ekintza kulturalaren ikuspegitik programa baten garapena bultzatzea, artistikoki, pedagogikoki, teknologikoki eta zientifikoki lotua.





Programaren berezitasunak



Parte hartzaile dimentsioa

- kultura maileko komunitatean parte hartzeko gogo sortarazi (informazio trukaketak...).
- Kopuru haundienaren partehartzea artamendatu, euskal ondareari loturiko aktibitate kulturaletan edozein adinekoek parte har dezaten.

Harremanen dimentsioa

- Belaunaldi ezberdinen arteko harremanen sorraraztea.
- Populazio kategorien arteko harremanen indartzea (espazio urbanoak/rurbanoak/baserritarrak).
- Sare edukatibo ezberdinetako haurren arteko harremanen bultzatzea.
- Kultura trukaketen garatzea.

Memorio kolektiboaren dimentsioa

- Ahozko memoria kolektiboa eta orokorki kultura ohiduren zaintzea.

Heziketa dimentsioa

- Gazteenak ondare kulturalari eta beraien bizi-lekuei sentsibilizatzea.
- Irrika kreatiboen sustatzea.

Sorkuntza dimentsioa

- Kreazio artistikoen sustengatzea, euskal kultura Euskal Herritik kanpo ezagutarazten dutenean.



Zehazkiago, programa ardatz ezberdinetara deklinatua izango da, euskal kultur erakundeko taldeak animaturik, artisten baita elkarte eta Euskal Herriko eragile kulturalen partehartzearekin.





BATEKMILA erakusketa ibiltaria

2006.erako

batekmila erakusketaren helburu nagusia, gure berezitasun linguistikoa eta kulturala baloratzea izan da, ber denboran ahal bezain publiko zabal bati parada eskainiz, euskal kulturaren eta oro har, euskaldunen hobeki ezagutzeko eta haiekin komunikatzeko. Egitarau berri honekin, Euskal kultur erakundeak berretsi nahi ditu « Kantuketan » ekimenaren bitartez lortu emaitzak, harremanak eta sareak.

Erakusketaren edukina ez bada gaurregun osoki finkatua, ideia nagusi zenbait atera ditugu. Lan horren egiteko, eskatu dugu Rafa Zulaika, Luberri communic.action lantegiko zuzendariari, gogoeta bat eraman zezan zernolako erakusketa izaten ahalko zen aztertzeke.

Lan horren lehen norabideak dokumentu batean bilduak dira (ikus eranskina) eta urritik goiti, batzorde bat antolatuko dugu Euskal kultur erakundearen, jende berezitu batzuekin (linguistikoan, kulturaren, eta teknologia berrietan).

Batzorde honen helburua izanen da, txostenaren oinarrietarik abiatuz, erakusketaren mamiaren eta formaren behin betikoz aukeratzea.

Erakusketaren prestatzen hasiak gara beraz; badakigu forma aldetik modernoa eta interaktiboa izango dela (Kantuketan bezalako), eta bereziki ibiltaria, Euskal Herrian, baina ere Euskal Herritik kanpo ikusia izan dadin.

Erakusketari datxikola, kultura ekintza anitz antolatuko ditugu, erakustoki eta ikusgarri geletan, baina ez kanpoan (adibidez karrika antzerkiarekin), hain zuzen « Batekmila »-ren xedea nagusia baita jendeen gureganatzea, euskal kulturaren eragileen bidez.



BATEKMILA Bertze ekintzak



Jadanik, erran dugun bezala, Batekmila » egitasmoa bizpahiru urteetarako da, eta ondorioz, gertakari desberdinak obratuko ditugu, hilabeteetan zehar.

Eredu bezala, zerrendatzen ditugu zenbait, nahiko aurreratuak eta bideragarriak direnak :

- **Inkesta soziologikoa** : « Kultura praktikak eta nortasun kolektiboak » izenekoa : azaroan abiatuko da, iparraldean, baina ere hegoaldean (partaidea : Eusko Jaurlaritza - Prospektiba kabinetea)
- **Euskal kulturaren Internet atariaren eraikitzea** (partaideak : Sei-Fagor, Code-Syntax-Eibar) - sarean, 2005eko martxoan
- **Sorkuntza artistikoa** : Euskal Herriko mitologian oinarritua, dantza eta musika garaikidea, kantua eta antzerkia, argi joko bereziak (ikusgarria 2005eko azaroan)

- **Ekintza bereziak, eskoletan eta eskolatik kanpo**, erakaskuntza sare desberdinen artean, lehenetsiz euskara idatzia (alegiak, ipuiak, leindak,...) eta landuz antzerkia, mimoa,...

- **Euskarri multimedia baten ekoiztea** haurrentzat, DVD-Rom adibidez, beti idatzizkoa parekatuz ahozkoarekin

- **Zahar eta gazteen arteko loturen azkartzea** eta oroitmen kolektiboaren berreskuratzea, euskal kulturaren bitartez (erietxeetan, mediateketan,...)

- **Euskararen sarraraztea bizi publikoan, elebitasuna bultzatuz**, halaber ekonomia alorrean eta espazio linguistiko berrietan.

